# Iragarpenak
# Anuncios

EKONOMIA ETA HERRIOGASUN SAILA

Kontratazio Batzorde Nagusiaren IRAGARPENA, Hegazti-Genetikaren Hobekuntzan aditua den Albaiteru profesional bat kontratatzeko. 3042

Patata Hobekuntzaren Estazioko eraikuntza nagusiaren Egokitze eta birmoldatzea Lanen Akurapenerako Akurapen-Batzorde - Nagusiaren herri-IRAGARKETA Erremate-Lehiaketa modura izendatuko dira. 3042

DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

ANUNCIO de la Comisión Central de Contratación para la contratación de un profesional Veterinario experto en Mejora Genética Avíar. 3042

ANUNCIO de la Comisión Central de Contratación para la Contratación de las Obras de Acondicionamiento y reforma del edificio principal de la Estación de la Mejora de la Patata que se adjudicarán mediante el procedimiento de concurso subasta. 3042

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**1247**

Apirilaren 23ko 4/1986 LEGEA, Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak, Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzko Apirilaren 23ko 4/1986 Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei. Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet Euskadiko herritar, norbanako eta agintari guztiei.

Gasteiz, 1986.eko Apirilaren 23.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

**ZIOEN ADIERAZPENA**

1.– LEGEAREN AZALPENA

Estatistika berebiziko garrantzizko gaia dugu, erabiltzen deneko alorra dena dela, eragin nahi zaion gaiaren benetako egoera ezagutzeko eta eragin hori neurtzeko lanabes baliotsua bait-da. Hala ere, Herri-Arduralaritzaren ihardunari buruzkoetan garrantzi hori bereziki areagotzen da, horrek gizarte-bizitzaren alderdi berezietan ihardun behar bait-du, gizarte-bizitza horrek orohar dituen zuduei kontu eginaz eta horren baitan sortutako bateango beharrei erantzunaz.

Autonomia-Estatutoaren 10.37 atalak bakarreango agintea ematen dio Euskadiko Autonomia-Elkarteari bere berenezko helburu eta agintepidetarako Euskal Herriko Estatistikaren alorrean. Aintzin-irizpide horretatik abiatuta, Lege honetan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika araupeketaren gai agertzen da, Elkartearen erabateko menpeko denez.

**PRESIDENCIA**

**1247**

LEY 4/1986, de 23 de Abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 4/1986, de 23 de Abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de Abril de 1986.

El Presidente,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

**EXPOSICION DE MOTIVOS**

1. PLANTEAMIENTO DE LA LEY

La Estadística es una materia de singular relevancia, cualquiera que sea el área en que se proyecte, dado que constituye una importante herramienta para captar la realidad sobre la que se vaya a incidir, así como para evaluar dicha incidencia. Sin embargo, adquiere un particular relieve respecto al desenvolvimiento de la Administración Pública, ya que ésta ha de actuar sobre las diferentes vertientes de la vida social atendiendo al interés general de la misma y satisfaciendo las necesidades colectivas producidas en su seno.

El artículo 10.37 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi la competencia exclusiva en materia de Estadística del País Vasco para sus propios fines y competencias. Partiendo de esta premisa, la presente Ley contempla, como objeto de regulación, la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por pertenecer a la total disponibilidad de ésta.

Hala ere, ezein Herri-Izaikik, eman zaizkion ahalmenak erakuntza zehatz baten bidez egiteratu behar ditu. Beraz, Autonomia-Elkarteak Estatistikaren alorrean dituen agintepideen egiteraketan bertako zein Ihardutze-Sail eta Herri-Izaiki arituko diren zehaztu beharra dago, hori egitea ere Elkarteak bakarrean duen bere burua eratzeko aginteari dagokiola.

Zera gainera, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren eta horren mugarteko Kondaira-Lurralde eta gainontzeko Herri-Izaikien elkar-atxikipena egitea bidezko gertatzen da, Estatistika-lana eta lan horretzaz baliatzea ahalik eta gehien hobetzeko xedez; elkar-atxikipen horren bidezkotasuna Autonomia-Estatutoak berak dakarrenari ezezik, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9garren atalak agintzen duenari ere ba dario.

Hoiegatik guztiegatik, honako hauek araupetzea du helburu Lege honek:

a) Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika, bere berenezko helburu eta agintepidetarako; I Idazpurua ari da horretzaz.

b) Estatistika horri buruzko ihardunean aritzeko erakuntza; II Idazpuruak hori du gai.

c) Kondaira-Lurraldeetako eta Autonomia-Elkartearen mugarteango gainontzeko Herri-Izaikietako estatistikak; gai hori III Idazpuruak darabil.

2. I IDAZPURUA

I Idazpuruak, lehen esan denez eta Autonomia-Estatutoaren 10.37 atalak agintzen duenez, Euskadiko Autonomia-Elkarteak bere bakarreango agintepide duen Estatistikaren araupeketa du xede.

Hala ere, Idazpuru honek ez du gai honekikoan Autonomia-Elkartearen ihardun osoa hartzen. Izan ere, Lege hau Estatistikaren Euskal Egitamua ontzat eman dezanaren bidez osatuko da, honek Autonomia-Elkartearen estatistika-lana araupetzeko bide izan, eta indarrean egon dedin aldiko estatistikak eta horrelako beste ekintzapide batzuk izan behar bait-ditu barne. Bestalde, lege-araupidetza hori Urtean-urteango Estatistika-Egitarauek egiteratuko dute, hoiek Egitamuan oharteman gabeko beste estatistikak eta baita, hala egokituz gero, eman daitezkeen araudi-bidezko beste araupide batzuk ere jaso ahal izango dituztela.

Nolanahi ere, Idazpuru honetan egiten den araupeketak funtsezko bi helburu lortu nahi ditu:

a) Unean-unean indarrean egon daitezen Egitamu, gainontzeko estatistika edo bestelako ekintzapideak direnak direla, Autonomia-Elkartearen Estatistika-ihardunа hari egokitu behar zaion egitura-mailako araupidetza iraunkorra jartzea.

b) Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzaren estatistika-alorreango ihardunarentzako esparruak eta helburuak finkatzea eta, hori, horren berarizko erakuntza, hots, arduralaritza-ahalmenaren zedarripena dena dela. Arduralaritzaren alor horretango ihardunа ere

Sin embargo, todo Ente público precisa desenvolver los poderes que tiene atribuídos a través de una organización concreta. De esta manera, se hace necesario determinar cuáles son los órganos y Entes de la Comunidad Autónoma que hayan de actuar en las competencias estadísticas de ésta, aspecto que pertenece a su también exclusiva competencia de autoorganización.

Además, resulta oportuno realizar la debida articulación entre la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las estadísticas de los Territorios Históricos y demás Entes Públicos comprendidos en el ámbito territorial de aquélla, a fin de optimizar el esfuerzo y el aprovechamiento estadísticos; la procedencia de tal articulación deriva no sólo del contenido del Estatuto de Autonomía sino, también, de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos.

Por todo ello, constituye el objeto de la presente Ley la regulación de:

a) La Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi para sus propios fines y competencias, a que se refiere el Título I.

b) La organización dedicada al desenvolvimiento de la actividad referente a dicha Estadística, a que se refiere el Título II.

c) Las estadísticas de los Territorios Históricos y otros Entes Públicos comprendidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, a que se refiere el Título III.

2. TITULO I

El Título I tiene por objeto la regulación de la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como materia de competencia exclusiva de la misma, según se ha señalado, a tenor de lo dispuesto en el artículo 10.37 del Estatuto de Autonomía.

Sin embargo, este Título no agota el ámbito de la actuación de la Comunidad Autónoma en esta materia. En efecto, esta Ley se verá complementada por la que apruebe el Plan Vasco de Estadística, dado que éste ha de ser instrumento ordenador de la actividad estadística de la Comunidad Autónoma y, en consecuencia, ha de contener las estadísticas y otras actividades de esta naturaleza a realizar durante el período de su vigencia. Por otra parte, esta normativa legislativa se verá desarrollada por los Programas Estadísticos Anuales que podrán contener, además, otras estadísticas no previstas en el Plan, así como, en su caso, por otras normas reglamentarias que pudieran dictarse.

No obstante, la regulación contenida en el presente Título pretende conseguir dos finalidades fundamentales:

a) el establecimiento de la normativa estructural y estable a la que habrá de adecuarse la actividad estadística de la Comunidad Autónoma, cualquiera que fuere el Plan o las demás estadísticas u otras actuaciones vigentes en cada momento.

b) el establecimiento del marco material y objetivo de actuación estadística de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma, con independencia de cuál sea su organización específica, o sea, la delimitación de la potestad administrativa en esta materia. No hay que

Arduralaritzari ihardun horrek berebaitan daramatzan eskubideez baliatzeko gaitasuna ematen dion arduralaritza-ahalmena egiteratzea denaz ez dugu ahaztu behar.

Helburu hoiei dagokiela, I Idazpuruak bost Atalburu ditu.

"Orotariko Erabakiak" deritzan Lehenengo Atalburua horrelako arauez ari da. Horrela, lehenengo atalak Autonomia-Elkarteko Estatistikaren zertazkoaren esparrua du gai, bere berenezko helburu eta agintepidetarako gai horretan duen bakarreango aginteаren arauera; 2garren atalak, erabakien mailaren aldetikako araupideak zehazten ditu; 3garren ataleko lehenengo txatalari, estatistikaren alor honetango ihardunaren berarizko oinarriak eta, hoien artean, azpimarragarri gisa, estatistika-isilpekotasuna eta ondorioen agirikotasuna sendesteak ematen dio bere berarizko garrantzia; azkenik, 4garren atala, estatistikaren alorrean barne-egokitasunezko eta elkar-kidetasunezko arauak izateko Elkarteko Estatistikaren esparruari datxezkon alorrentzako, lurraldeentzako, erakundeentzako eta gainontzeko nolanahiko alderdientzako zernolakoak, zehaztapenak, sailkapenak, eta izenak jarri beharraz ari da, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 20garren atalean esaten denaren arauera, Nazioarte-mailako Ituneetatik atera dedinaren kaltetan gabe.

Lehenengo Atalburua Erresumaren eta Euskadiko Autonomia-Elkartearen estatistika-alorreango egoeraz ari dela azpimarratzea interesgarri egiten da: lehenengoa erresuma-mailako helburuetarako Estatistikaren alorreango bakarreango agintearen jabe da, eta bigarrenak, berriz, bere berenezko helburu eta agintepidetarako Estatistika-alorreango bakarreango agintepidea du. Esandako bi Izaiki hoiek Erresumak eta Autonomia-Elkarteak, alegia bakarreango eta beste inork gabeko agintea dutenez gero, Lege honen 3garren atalaren 2garren txatalak, Autonomia-Elkarteak Erresumarekin Lankidetza-Ituneak egin ahal izango dituela dio, bere Estatistikarentzat eta erresuma-helburutarakoarentzat batera baliagarri izan daitezen estatistika-lanez biak baliatu ahal izateko. Baina Itune hauek ez dago ahalbide-maila hutsean hartzerik; estatistika-lanez biak baliatu ahal izateak Itune hori guragarri egiten du, baina, nahi bezain guragarri izanik ere, Legeak ez dauka Ituneek, eduki jakin batekikoan, bere baitan nahikidetasuna daramatelakoa eta, beraz, itunea egitera iritsi nahiz egin gabe utzi daitekeelakoa bazter uzterik; bestetik, arauzkotasun hutsezko ikuspegitik begiratuta, ez dauka Lankidetza-Ituneen esparruak Autonomia-Elkartearen eta Erresumaren agintepideen luze-zabal guztia hartzen ez duelakoa gogoan izan gaba uzterik. Horregatik, Legea, Itune hauek 3garren ataleko 1 txataleko c) letraren bidez egitera iristea guragarri litzatekeela aitortuz, agiango Itune hoien nolakoari buruzko elkarkidetasun-oinarria ere tajutuz, aintzin-irizpide honekin bat dator.

Bigarren Atalbura "Estatistika-Ihardunaren Esparrua" deitzen dionaz ari da, lehenengo atalak dioen esparruan sartzen diren moeta honetako estatistikak eta beste ekintza batzuk egiteko bide ematen duela, baina Estatistikako Euskal Egitamuan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauetan sartzen direnak egiteratu beharra zehaztuz.

olvidar que la actuación de la Administración en esta materia constituye, también, el ejercicio de una potestad administrativa que habilita a aquélla a disponer de las prerrogativas inherentes a ésta.

En congruencia con estas finalidades, el Título I se divide en cinco Capítulos.

El Capítulo Primero, denominado «Disposiciones Generales», se dedica a las normas propias de esta naturaleza. Así, el artículo 1 se refiere al ámbito material de la Estadística de la Comunidad Autónoma, de acuerdo con la competencia exclusiva de que dispone sobre la misma para sus fines y competencias; el artículo 2 determina la normativa reguladora desde la perspectiva del rango formal de las disposiciones; el apartado 1 del artículo 3 tiene la especial relevancia de consagrar los principios específicos propios de la actuación en esta materia entre los que cabe destacar el de secreto estadístico y el de publicidad de los resultados; por último, el artículo 4 contempla la obligatoriedad de los conceptos, definiciones, clasificaciones y nomenclaturas de sectores, territorios, organismos y de cualesquiera otros elementos relacionados con el ámbito material de la Estadística de la Comunidad, a fin de disponer de una referencia coherente y homogénea de la materia estadística, sin perjuicio de lo que resulte de los Convenios Internacionales, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Resulta de interés destacar que el Capítulo Primero contempla la situación del Estado y de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia estadística: el primero dispone de competencia exclusiva en materia de Estadística para fines estatales, y la segunda dispone de competencia exclusiva en materia de Estadística para sus propios fines y competencias. Dado que la competencia de cada uno de dichos Entes –Estado y Comunidad Autónoma– constituye un ámbito exclusivo y excluyente, el apartado 2 del artículo 3 de la Ley establece que la Comunidad Autónoma podrá celebrar con el Estado Convenios de Cooperación a efectos del mutuo aprovechamiento de estadísticas que sirvan a la vez a la Estadística de aquélla y a la Estadística para fines estatales. Sin embargo, no se puede contemplar la celebración de estos Convenios como una mera posibilidad más; el mutuo aprovechamiento estadístico hace, ya, deseable dicha celebración, pero, por muy deseable que sea, la Ley no puede dejar a un lado que todo Convenio implica un acuerdo de voluntades sobre un contenido determinado y que, por este motivo, se puede llegar o no a su celebración; por otra parte, tampoco puede olvidar que, al menos desde un punto de vista meramente formal, el marco de los Convenios de Cooperación no agota la extensión de la competencia de la Comunidad Autónoma y del Estado. Por ello, la Ley es congruente con estas premisas manifestando la deseabilidad de que se llegue a estos Convenios mediante la letra c) del apartado 1 del artículo 3, al formular también el principio de coordinación referido a los términos de dichos posibles Convenios.

El Capítulo Segundo dedica su contenido a lo que denomina «Marco de la Actuación Estadística», permitiendo la realización de las estadísticas y otras actuaciones de esta naturaleza comprendidas en el ámbito material a que se refiere el artículo 1, aunque estableciendo la obligatoriedad de la realización de las que se incluyan en el Plan Vasco de Estadística y en los Programas Estadísticos Anuales.

Horrela, Autonomia-Elkarteak nahitaez Egitamu horretan eta estatistika-Egitarauetan jarritako modu eta neurritan egin beharreko lana zedarritzen du. Estatistikako Euskal Egitamua legez onartuko da, berez eta horretzazko berarizko inolako aldarrikapenik gabe Erresumaren eta Euskadiko Autonomia-Elkartearen arteko Lankidetza-Ituneen gai izan daitezen estatistikazko ekintzapide guztiak barne dituela ulertuko denarren. Egitamuak, Jaurlaritzaren Dekretoz ontzat emango diren Urtean-urteango Estatistika-Egitarauen bidez osabideratu eta egiteratuko dira; Jaurlaritzak, hoietan, Egitamuan oharteman gabeko beste estatistikak ere sartu ahal izango ditu.

Bestetik, eta taiukera hori ahalik eta egokikorren egiteko xedez, Legeak, Sailen eta Jaurlaritzaren beraren arioz, Egitamuan eta Egitarauetan sartu gabeko estatistikak egin ahal izatea ohartematen du.

Bukatzeko, Bigarren Atalburuak, estatistika bat Autonomia-Elkarteko Estatistikaren esparruaren zati edo alderdi baten egoera eta/edo bilakakuntza erakusten duen estatistika-jakintzaren eta teknikabideen berenezko xehapen-saila dela uste izatetik abiatzen da. Hori guzti hori, haztaketa eta alderaketak egiteko hasierako aldiak gainditu eta ekonomiazko kontuak, ekonomiazko, gizarte eta biztanlego alorretako erakuskariak, biztanle-erroldak, usiketak edo beste edonolako ekintzapideak, hoien aldian aldikotasunari begiratu gabe, behar hainbateko teknikazko sendotasuna lortu ondoren, azken idazkeran zehazten da. Legezkoez besteko alderdi hoeik kontutan izanik, Legeak, estatistikak Autonomia-Elkarteko Estatistika-ihardunaren funtsezko egitura direnez gauzatzeko bide izango diren legezko alderdien zehaztapena egiten du.

"Estatistikagintza" deritzan Hirugarren Atalburua argipide-horniketa eta emaitzak araupetzeko bi Sailetan banatzen da. Atalburu honetan agintzen dena, bakoitzean hartaz ari dedineko estatistika-ekintza araupetu dezan araupidetzaren bidez osatu edo egiteratu beharko da.

Argipide-horniketak, dagokien estatistikazko ihardutze-erakundeek Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren esparruari datxezkon gertakariei buruzko xehapenak biltzea du xede. Legeak jakineko estatistika-ekintzetan erabiltzeko behar diren argipideez gainera xehapen-biltegiak eratzeko eta beste estatistika edo horrelako beste ekintza batzuen oinarritarako argipideak biltzeko era bat ohartematen duela azpimarragarria da.

Beste alde batetik, emaitzek estatistikak osatzen dituzten aleen zermugapena eta zehaztapena egiten dute. Zera nabarmenarazi behar da: Egitamuan, Egitarauetan eta Jaurlaritzak ofizialtzat aldarrikatu ditzan besteentango emaitzak agirikoak eta, Euskadiko Autonomia-Elkarteak hoiek ezartzeko ahalmena izan dezaneko harremanetan eta legezko egoeratan, ondorio hoiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarri daitezen unetik, alde horretatikako berarizko aldarrikapenik egin gabe, nahitaez erabiltzekoak izango dira.

Laugarren Atalburua "Estatistika-isilpekotasunaz" ari da, eta isilpekotasun-behar hori Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzko ihardunean giltzarri

De esta manera, se delimita la actividad que, necesariamente, ha de realizar la Comunidad Autónoma en los términos establecidos en el Plan y en los Programas estadísticos. El Plan Vasco de Estadística será objeto de aprobación mediante Ley, aunque se entenderán materialmente contenidas en aquél, de manera automática, todas las actividades estadísticas que sean objeto de Convenios de Cooperación entre el Estado y la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin necesidad de declaración expresa alguna al respecto. Los Planes serán objeto de desarrollo y ejecución mediante los Programas Estadísticos Anuales, que serán aprobados por Decreto del Gobierno, el cual podrá incluir en los mismos, además, otras estadísticas no previstas en el Plan.

Por otra parte y a fin de flexibilizar al máximo el esquema descrito, la Ley contempla la posibilidad de realizar estadísticas no incluidas en el Plan ni en los Programas, a iniciativa de los Departamentos y del propio Gobierno.

Por último, el Capítulo Segundo parte de la idea de que una estadística es el conjunto de elementos propios de la ciencia y técnica estadísticas, que refleja la situación y/o evolución de una parte o vertiente del ámbito material de la Estadística de la Comunidad Autónoma. Todo ello se concreta en su versión definitiva, una vez superadas las fases iniciales de experimentación y contrastación, y conseguida la suficiente consistencia técnica, en cuentas económicas, indicadores económicos, sociales y demográficos, censos, operaciones muestrales u otras figuras cualesquiera, con independencia de su periodicidad. Teniendo en cuenta estos aspectos extrajurídicos, la Ley procede a determinar los elementos jurídicos que han de guiar la configuración de las estadísticas como instrumentos formales que estructuren, fundamentalmente, la actividad estadística de la Comunidad Autónoma.

El Capítulo Tercero, «La Actuacion Estadística», se divide en dos Secciones dedicadas a la regulación del suministro de información y de los resultados. Lo dispuesto en este Capítulo habrá de ser complementado o desarrollado a través de la normativa que regule la actividad estadística concreta de que se trate.

El suministro de información tiene por objeto la captación de datos referidos a sucesos que tienen relación con el ámbito material de la Estadística de la Comunida Autónoma de Euskadi, por parte de los órganos estadísticos competentes. Merece destacarse que la Ley prevé un sistema de suministro de información al margen del que sea necesario para su utilización en actividades estadísticas concretas, como instrumento idóneo para integrar bancos de datos y para configurar nuevas estadísticas u otras actuaciones de esta naturaleza.

Por su parte, los resultados constituyen la determinación y concreción de los elementos que integran las estadísticas. Interesa poner de relieve que los resultados correspondientes a las estadísticas que se determinen en el Plan, en los Programas y en aquéllas otras que el Gobierno declare oficiales, serán públicos y de aplicación obligatoria, sin declaración expresa alguna en este sentido, en las relaciones y situaciones jurídicas respecto a las que la Comunidad Autónoma de Euskadi tenga competencias para imponerlos, desde el momento en que la existencia de tales resultados sea objeto de anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

El Capítulo Cuarto se refiere a «El Deber de Secreto Estadístico», institución clave en la actuación referente a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi,

gertatzen da eta, hori, Legea ihardun horretan esandako isilpekotasunari Atalburu horretan jarritako modu eta neurritan erabatmen egin beharretik abiatzen delako.

Atalburuaren eduki osoa garrantzi haundikoa da, argipideketaren gai diren norbanakoei legezko babes haundia ematen zaienaren aldetik; horretan, estatistika-xehapenak emateak estatistikazkoaz besteko ezein esparrutan inolako ondoriorik ez duela izango agintzen duen 19.3 atala nabarmentzen da.

Estatistikazko isilpekotasun-beharrak bere babespeko xehapenak zalbatzea edo inori eskuratzea, eta xehapen hoiek ezagutzean oinarrituz jokatzea galerazten du, eta Erakunde arteko behartze-indarra ezezik, norbanakoen eta ihardutze-erakundeen arterakoa ere ba du. Hala ere, hori, argipideek biltzerakoan zeukaten zertarakoaz bestelako estatistika-ekintzetarako erabiltzearen kaltetan gabe dela ulertzen da, hoietan eskuhartu dezatenak ere estatistika-isilpekotasunaren menpe gelditzen direla.

Betebehar hau hausteak egindako oker eta kalteen ordaina ematezko erantzunbeharra ekarriko du, Zigor-Epaibidetara jotzearen, herrilanarien eta gainontzeko herri-langileen zentzapiderako eta V Atalburuak dioen zigortze-ahalmena izatearen kaltetan gabe. Gainera, horrek ez du isilpekotasun-beharra indargabetzen, hori hautsi izanagatik horren babespeko xehapenak ezagutu ditzatenek ere isilpekotasun-behar horretara behartuta dauden gainontzekoentzat jarritako neurri eta modu berean bete beharko bait-dute.

Bukatzeko, Boskarren Atalburuak "Zigor-Jaurpideak" araupetzen ditu, birrauspenak, gezurrezko argipideak edo funtsean zatikako direnak ematea, xehapenak eman beharra ez betetzea, estatistikazko isilpekotasun-beharraren hauspena eta estatistikako langileen nortasuna gezurretan hartzea gogor bai gogor zigortuz.

3.- II IDAZPURUA

II Idazpuruak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoetan aritu daitezkeen ihardutze-sail eta Izaikiak ditu gai. Elkartearen berenezko Arduralaritza Nagusi eta Erakundegoren-mailakoez gainera, Foru-Diputazioak ere aritu ahal izango dira eta bai, taldean nahiz banaka, Udalak ere; hoien ihardun hori, erakundetzan hoiegandik bereizitako Izaiki den Autonomia-Elkartearena denez gero, haiei hala dagokionean bere araupidetzak berenezkotzat izendatu eta III Idazpuruaren gai den estatistika-alorreko agintepideari dagozkionetan egiteratu dezaketenarekin ezin nahastu daitekeela.

Estatistika Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritza osoaren garrantzi bereziko gauzazko baliapide denez, hari buruzko iharduna eraz eta osoan egin behar da. Horregatik, Lege honen alde honetatikako irizpidearen muina, arduralaritza-eremu ezberdinek batean ihardutеko bide ematezko ihardun egokikor eta askarreko taiukera finkatzean datza.

Izan ere, Legeak, lehenengo eta behin, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" sortarazten du, Autonomia-Elkarteko Arduralaritzazko Ihardutze-Sail Burujabe, horrek izango duen Erakunde-

ya que la Ley parte de la total sujeción de aquélla a dicho deber, en los términos establecidos en el Capítulo señalado.

Todo el contenido del Capítulo tiene una gran relevancia en la medida de que se dota a las personas afectadas por la información, de una gran protección jurídica, mereciendo destacarse, en este sentido, el artículo 19.3 que establece que el suministro de datos estadísticos no producirá efecto alguno en otro ámbito diferente al de carácter estadístico.

El deber de secreto estadístico impide difundir o facilitar los datos amparados por el mismo, así como actuar en base al conocimiento de dichos datos, salvo en los supuestos que expresamente indica la Ley, y opera no sólo entre Entidades sino, también, entre personas y órganos de cada una de ellas. No obstante, ello se entiende sin perjuicio de la utilización de la información de que se trate en otras actuaciones estadísticas diferentes a las que motivaron su suministro, quedando, también, obligados al deber de secreto estadístico quienes hayan de intervenir en las mismas.

El incumplimiento de este deber dará lugar a la responsabilidad indemnizatoria de los daños y perjuicios causados, sin perjuicio de la Jurisdicción Penal, de la potestad disciplinaria sobre los funcionarios y demás personal público y de la potestad sancionadora a que se refiere el Capítulo V. Además, no por esto queda sin efecto dicho deber ya que, quienes tuvieren conocimiento de datos amparados por el mismo, por incumplimiento de las normas reguladoras de éste, quedarán también obligados a su cumplimiento en los mismos términos establecidos para los demás sujetos obligados.

Por último, el Capítulo Quinto regula el «Régimen Sancionador», castigando con mayor dureza las reincidencias, el suministro de información falsa o sustancialmente incompleta, el incumplimiento de la obligación de suministro, el del deber de secreto estadístico y la suplantación de personalidad del personal estadístico.

3. EL TITULO II

El Título II se refiere a los órganos y Entes que pueden actuar en relación a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Además de los pertenecientes a su propia Administración General e Institucional que se indican, podrán actuar las Diputaciones Forales y, agrupados o a título individual, los Ayuntamientos, aunque no se debe confundir esta actuación, que se refiere a una materia cuya competencia no les corresponde por ser propia de la Comunidad Autónoma, Ente institucionalmente diferente a aquéllos, con la actuación que los mismos puedan llevar a cabo en relación a la competencia estadística que, en su caso, tengan atribuida como propia por su normativa reguladora y que se contempla en el Título III.

Dado que la estadística constituye un medio material de singular relevancia de toda la Administración Pública de la Comunidad Autónoma, la actuación referente a aquélla ha de llevarse a cabo de una forma ordenada e integrada. Por ello, el núcleo central de la filosofía de la presente Ley en este aspecto es el establecimiento de un esquema de actuación plural y flexible, que permite la actuación conjunta de los diferentes ámbitos administrativos.

En efecto, en primer lugar la Ley crea el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, como Organismo Autónomo Administrativo de la Comunidad Autónoma, a fin de que la autonomía de que

goren-mailako Izaikiei dagokien burujabetasuna estatistika-ihardunean beharrezkoak diren aldekoikeriarik ezaren eta berarizkotasunaren onerako izan dedin. "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" delakoa Ekonomia eta Herriogasun-Sailari atxikita gelditzen da, eratxikipen hori Dekretoz aldatu daitekeela.

Bainan, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" delakoa ez da estatistika-alorrean gaitasunik duen Izaiki bakarra. Jaurlaritzako Sailek eta, esandako neurritan, Foru-Diputazioek eta Udalek ere, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoan ere ihardun ahal izango dute; horretarako, Legeak, bere estatistikaren alorreango iharduna arduralaritzazkoagandik argi eta garbi bereizi eta, bidebatez, ihardutze-sail hoietan aritu daitezen estatistika-lanarien teknikazko gaikuntza berezia suztatu dezan berarizko estatistika-sail bat berebaitan eratu dezatenaren baldintza bakarra jartzen du. Horrela, unean-unean eratuta egon daitezen berarizko estatistikako ihardutze-sail hoiek izango dira "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rekin egintza-mailako gaitasuna izango duen ihardutze-erapidetza izango den Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzan sartuko direla. Legeak "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rentzat gordetzen ditu Egitamuketa eta Arauzkotze-ihardunak, eta Ekoizte-iharduna banatu egiten du, honako xede hauekin: alde batetik, Erakundearen estatistika-alorreango agintea indartzea, elkarren kideko emaitza alderagarriak lortzeko nahitaezko baldintza denez eta, bestetik, Euskadiko Autonomía-Elkarteko estatistikagintzan eskuhartu nahi dezatenen lana erraztea.

Bainan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza ez da ihardutze-maila horrekin agortzen, Legeak bi ihardutze-sail sortarazten bait-ditu, "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" eta "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" alegia, lehenengoa herri-Arduralaritza berezik, hots, autonomiazkoak, foruzkoak eta tokikoak eskuhartu dezateneko ihardutze-sail eta, bigarrena, estatistika-argipideen sortzaileen eta baliatzaileen arteko harremanetarako ihardutze-sail. Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzan aholkularitza-mailan sartuko diren ihardutze-sail hoiek ez dakarte arduralaritzazko azpiegitura berria sortarazterik, Legeak dioenez, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k jarriko bait-ditu, bere diruegitamuen pentzutan, Kontseiluak eta Batzordeak behar bezala ihardutzeko behar ditzaten baliapideak.

Halaber, zera azpimarratu behar da: Legeak, estatistikak arduralaritza-xehapenetatik abiatuta egitea indartu beharreko bidetzat jotzen duela. Azken baten, herri-Arduralaritzak bere ihardutze-erak berritzeko egin ditzan ahaleginei ahalik eta etekinik haundiena ateratzea nahi da, eraentzarako eta estatistikagintzarako batera balio eta, ahal den neurrian arduralaritzapekoei argipideak birritan eskatzeari ihes egiteko eran.

Esandako hoien arauera, II Idazpuruak bost Atalburu ditu. I Atalburuak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoetan ari diren ihardutze-sailak eta Izaikiak zermugatzen ditu. II Atalburuan "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren sorpena, agintepideak eta beste zernolako batzuk araupetzen dira. III Atalburuak, Jaurlaritzako Sailek eta bere Erakundegoren-mailako Izaikiek alor honetan dituzten agintepideak zehazten ditu. Eta, bukatzeko, IV eta V

vaya a disponer, propia de los Entes Institucionales, redunde en beneficio de la imparcialidad y especialización necesarias en la actuación estadística. El Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística queda adscrito al Departamento de Economía y Hacienda, si bien podrá modificarse esta adscripción por Decreto.

Sin embargo, el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística no es el único Ente competente en materia estadística. Los Departamentos del Gobierno, así como en los términos señalados las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos, pueden actuar, también en relación a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi; para ello, la Ley impone como única condición que se doten de un órgano estadístico específico que permita diferenciar claramente entre su actuación estadística de la administrativa, favoreciendo, al mismo tiempo, la especialización técnica del personal estadístico que trabaje en dichos órganos. De esta manera, serán tales órganos estadísticos específicos que estén constituidos en cada momento los que, junto con el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, se integren en la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como complejo orgánico competente a nivel operativo. La Ley reserva al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística las funciones de Planificación y Normalización y contempla la distribución de la función de Producción, pretendiendo, de una parte, reforzar la autoridad estadística del Instituto como condición necesaria para obtener resultados homogéneos y comparables y, de otra, facilitar la actuación de quienes deseen tomar parte de la producción estadística de la Comunida Autónoma de Euskadi.

Pero, la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi no se agota con el nivel operativo señalado, ya que la Ley crea dos órganos, la Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística y el Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística, la primera como órgano de participación de las diferentes Administraciones públicas, autonómica, foral y local, y el segundo como órgano de relación entre productores y usuarios de información estadística. Tales órganos, que se integrarán en la Organización Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi a nivel consultivo, no implican la creación de una nueva infraestructura administrativa, dado que la Ley establece que los medios que precisen el Consejo y la Comisión para su correcto funcionamiento, serán cubiertos por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, con cargo a su presupuesto.

Asimismo, interesa destacar que la Ley propugna la formación de estadísticas a partir de datos administrativos como vía a potenciar. Se trata, en definitiva, de rentabilizar al máximo los esfuerzos que realice la Administración pública para innovar sus procedimientos, de forma que sirvan, al mismo tiempo, a los fines de gestión y también a los fines estadísticos, evitando así, en lo posible, toda duplicidad de petición de información a los administrador.

De acuerdo con lo anteriormente señalado, el Título II se estructura en cinco capítulos. El Capítulo I define los órganos y Entes que actúan respecto a la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En el Capítulo II se regula la creación, competencias y otros aspectos del Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística. El Capítulo III establece las competencias de los Departamentos del Gobierno y sus Entes Institucionales en esta materia. Por último, los Capítulos IV y V se

Atalburuek "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" eta "Euskal Estatistika-Kontseilua /Consejo Vasco de Estadística" dituzte gai.

4.– III IDAZPURUA

III Idazpuruak, Kondaira-Lurraldeetako estatistikak eta Erresumako nahiz Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritza Nagusiko edo Erakundegoren-mailakoez bestekoak izan eta Autonomia-Elkartearen mugartean daudenenak ditu gai.

Kondaira-Lurraldeei dagozkienetan, Legea, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9 garren atalak dioenetik abiatzen da. Gainontzeko Herri-Erakundeei buruzkoan, hala gertatuz gero, hoien estatistiken berarizko araupidetzetatik abiatzen da.

Izaiki hoien estadistikek 36garren atalean ohartemandako araupideak izan behar dituzte jaurpide, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikarekin teknikaren aldetik antolakidetu behar dira, eta "Euskal Estatistika--Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri ezagutarazi behar zaizkio, hori guzti hori horren estatistika--ihardunaz ahalik eta ondoen baliatzeko xedez.

5.– BESTE ERABAKI BATZUK

Jaurlaritzak zigorren zenbatekoa unean-uneari egokitzeari buruzko Erabaki Gehigarri Bakarra, diruaren balioak gaudeneko ekonomia-eremuan dituen aldakuntzen artezko ondorioa dugu.

Aldibaterako Erabakietako Lehenengoak eta Bigarrenak, lehengo egoera Lege honetan agintzen denari egokitzera jotzen dute. "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" sortzeak dakarren erakuntza-aldaketaren berebaitango agiango korapilotsua dela eta, horren iharduna noiz hasiko den erabakitzeko eta hori gertatu dedin ekonomia-urteko diruegitamua onartzeko eskua ematen zaio Jaurlaritzari, diruegitamu hori aurrez jarritako irizpideen arauera egin beharko denarren.

Gainontzeko Aldibaterako Erabakiek Estatistikako Euskal Erapidetzaren Lege-Egitasmoa gertatzeko eta Batzordearen eta kontseiluaren barne-Araudia egiteko eta onartzeko gehienezko epeak finkatzen dituzte.

refieren a la Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística y al Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística.

4. EL TITULO III

El Título III contempla las estadísticas de los Territorios Históricos y de los demás Entes Públicos no pertenecientes a la Administración General o Institucional del Estado o de la Comunidad Autónoma de Euskadi, comprendidos en el ámbito territorial de ésta.

En cuanto a los Territorios Históricos, la Ley parte de los dispuesto en el artículo 9 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos. En cuanto a los demás Entes Públicos, la Ley parte de la normativa que, en su caso, regule sus estadísticas.

Las estadísticas de dichos Entes han de regirse por la normativa prevista en el artículo 43, han de coordinarse técnicamente con la Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y han de ser objeto de información al Euskal Estatistika-Erakunde/Instituto Vasco de Estadística, todo ello en aras de lograr un mejor aprovechamiento de su actividad estadística.

5. OTRAS DISPOSICIONES

La Disposición Adicional Unica, referente a la adecuación de la cuantía de las sanciones por el Gobierno, es la consecuencia directa de las variaciones de valor de la moneda en nuestro contexto económico.

